

Matematika astearen asmakari testoak

1 asmakaria I zikloa: pasak

Lau haur, Gustave, Pierre, Julie eta Marie balukan ari dira, pasakan ari dira. Beti Gustavek dü lehenik balua urtukitzen.

Gustavek balua Marieri igorten deio, honek Pierreri urtukitzen deio eta Pierrek Julieri, azkenean Juliek Gustaveri arra igorten deio.

Denek balua behin üken behar düe.

Trükatze ürrentzean, beti Gustavek dü balua azkenik üken behar.

Baluaren urtukitzeko beste elkibide eli bat ediren ezazü

1 asmakaria II zikloa: pasak

Lau haur borobilean dira, algarri pasak egiten dütüe. Gustave joküaren eramailea da. Balua lagün bati urtukitzen deio, eta honek beste haur bati. Denek balua behin üken behar düe.

Trükatze ürrentzean, beti Gustavek dü balua azkenik üken behar.

Zonbat ebilbide egingarri da?

1 asmakaria III zikloa: pasak

Myriam, Luce, Karim, Pedro eta Béatrice balua algarri pasarazten düe.

1) Haur ezberdinen arteko egingarri diren pasa güziak ediren etzazü

Zonbat dira?

Oharra: Pasaren zentziak ez dü garrantzirik (bi haurren arteko pasa batek pasa **bat** balio dü)

2 asmakaria I zikloa karakoila

Karakoil batek, bost harriz gora den mürü bat igaiten dü. Egünaz bi harriz igaiten dü bena gaü oroz, batez behera lerratzen da.

Astelehen goiz batez abiatzen bada, zoin egünez heltüko da mürü gaineala?

2 asmakaria II zikoa Karakoila

Karakoil batek, zortzi harriz gora den mürü bat igaiten dü. Egünaz, hiru harriz igaiten da bena gaü oroz, bi harriz behera lerratzen da.

Astelehen goiz batez abiatzen bada, zoin egünez heltüko da mürü gaineala?

2 asmakaria III zikoa Karakoila

Karakoil batek, hamabi harriz gora den mürü bat igaiten dü. Egünaz, lau harriz igaiten da bena gaü oroz, hiru harriz behera lerratzen da.

Astelehen goiz batez abiatzen bada, zoin egünez heltüko da mürü gaineala?

Txapeldünen Gehigarri berezia: Karakoil batek, hamabi harriz gora den mürü bat igaiten dü. Egünaz, lau harriz igaiten da bena gaü oroz, bi harriz behera lerratzen da.
Astelehen goiz batez abiatzen bada, zoin egünez heltüko da mürü gaineala?

3 asmakaria I zikloa eta II zikloa Erreka zeharkatü

Haurjale batek hiru pertsonaier erreka zeharkarazi behar deie:
otsoa, neskatxona eta bixkotxa
Haurjaleak pertsonai bat baizik iganarazten ahal dü bidaje bakotx,
bena otsoak neskatxonaren jatea arriskatzen dü,
neskatxonak bixkotxaren jatea arriskatzen dü,
algarrekin agitzen badira erreka bazterrean.

Haurjalea nola antolatüko da hiru pertsonaier erreka zeharkarazteko?

3 asmakaria III zikloa Erreka zeharkatü

1 heina

Argizagirik gabeko gaü batez, 4 soldadoek kanpamentüala ützüli behar düe, erreka-
zeharkatzez zübi batetarik.

Errekaren zeharkatzea

1 heina

Argizagirik gabeko gaü batez, 4 soldadoek kanpamentüala ützüli behar düe, erreka-
zeharkatzez zübi batetarik.

Bena ez da hain aija!

Zübiak 2 jente baizik ez dütü jasaiten ahal.

Zeharkatzeko, argi bat baizik ez düe.

Eta hortan ez da finil!

Zübiaren igaiteko, soladado bakotxak ez dü ber denbora emaiten:

- Achille zauritürik da, 10 minüta behar dü
- Boris sobera kargatürik da, 5 minüta behar dü
- Charles zahar da, 2 minüta behar dü
- David gazte da, minüta 1 behar dü

Jakitez argiaren autonomia (argitüko düan iraipena) 30 minütakoa dela, 4 soldadoek nola eginen
düen erreka- zeharkatzeko azalt ezazü

Errekaren zeharkatzea

2 heina

Argizagirik gabeko gaü batez, 4 soldadoek kanpamentüala ützüli behar düe, erreka-
zeharkatzez zübi batetarik.

Bena ez da hain aija!

Zübiak 2 jente baizik ez dütü jasaiten ahal.

Zeharkatzeko, argi bat baizik ez düe.

Eta hortan ez da finil!

Zübiaren igaiteko, soladado bakotxak ez dü ber denbora emaiten:

- Achille zauritürik da, 10 minüta behar dü
- Boris sobera kargatürik da, 5 minüta behar dü
- Charles zahar da, 2 minüta behar dü
- David gazte da, minüta 1 behar dü

Jakitez argiaren autonomia (argitüko düan iraipena) 19 minütakoa dela, 4 soldadoek nola eginen
düen erreka- zeharkatzeko azalt ezazü

Errekaren zeharkatzea

2 heina

Argizagirik gabeko gaü batez, 4 soldadoek kanpamentüala ützüli behar düe, erreka-
zeharkatzez zübi batetarik.

Bena ez da hain aija!

Zübiak 2 jente baizik ez dütü jasaiten ahal.

Zeharkatzeko, argi bat baizik ez düe.

Eta hortan ez da finil

Zübiaren igaiteko, soladado bakotxak ez dü ber denbora emaiten:

- Achille zauritürrik da, 10 minüta behar dü
- Boris sobera kargatürrik da, 5 minüta behar dü
- Charles zahar da, 2 minüta behar dü
- David gazte da, minüta 1 behar dü

Jakitez argiaren autonomia (argitüko düan iraipena) 17 minütakoa dela, 4 soldadoek nola eginen düen errekaeren zeharkatzeko azalt ezazü

4 asmakaria I zikloa Ttipien maila Anddekotagorrien hegaltaldia

Ttipien mailari proposatürrik asmakaria

Ikusten dütüzün 5 anddekotagorrietarik 3 hegaltatzen dira

Marc-ek, baratzen diren anddekotagorrien hegaletako ttikak zenbatzen dütü

3 ttika zenbatzen dü

Baratzen diren 2 anddekotagorriak edireiten ahal dütüzüa?

4 asmakaria I zikloa Artekoen eta azken urtekoen mailak

Anddekotagorrien hegaltaldia

Artekoer eta azken urtekoen mailer proposatürrik asmakaria

Ikusten dütüzün 5 anddekotagorrietarik 2 hegaltatzen dira

Marc-ek, baratzen diren anddekotagorrien hegaletako ttikak zenbatzen dütü

10 ttika zenbatzen dü

Baratzen diren 3 anddekotagorriak edireiten ahal dütüzüa?

4 asmakaria II zikloa Anddekotagorrien hotela

CP/CE1/CE2 mailakoer proposatürrik asmakaria

Barbalot hotelean, 21 anddekotagorri da

10 anddekotagorri hoili da eta 11 anddekotagorri gorri

Marc ohartü da, hotelean sartzen direnean, biazka dira ber kolorez direlarik, eta hirunaka kolore ezberdinez direlarik.

Hotelean sartzeko manera ezberdinak ediren etzazü

4 asmakaria III zikloa Anddekotagorrien hotela

CM1/CM2 mailakoer proposatürrik asmakaria

Barbalot hotelean, 21 anddekotagorri da

10 anddekotagorri hoili da eta 11 anddekotagorri gorri

Marc ohartü da, hotelean sartzen direnean, biazka dira ber kolorez direlarik, eta hirunaka kolore ezberdinez direlarik.

Hotelean sartzeko manera egingarriak oro ediren etzazü